
BERTSO PAPERAK

Joakin Garmendia Zubillaga

LEITZAKO IBILALDIA

(1)

Hogeita zazpi urte badira
hogeita zortzi garrena,
Hernanitikan Leitza aldera
mendiz Adarran barrena,
batzuetan goiz giro ederra
euri laprazta hurrena,
hasieran bai sasoi ederra
iristerako herrena.

(2)

Dingi ta danga hasiak dira
Hernanin eleiz kanpaiak,
iritsi dira Elurtxoritik
abiatzeko garaiak,
goizeko bostak ditugu eta
zeinen animo alaiak,
dama bakarra degu gurekin
beste guztiak galaiak.

(3)

Azketaraino iritsi eta
indarra nahiko flakoa,
eskerrak Elur Txorik zai daukan
hamaiketako bapoa,
janaritik aukera eta
edaritikan nahikoa,
sinismen gabekoetaz ere
errukitzen da Jainkoa.

(4)

Etzalatikan Mandoegira
ta handik Leitzalarrera,
berriro ere ahuldu gerata
prestatutako lanera,
salda, haragi egosi, oilo
frikituaren harrera,
atseden gozo bihurtu dute
gure nekeen kamera.

(5)

Leitzalarretik antenaraino
han ezta entzuten hitzik,
eztula eta arnas zarata
edo puzker batzuk baizik,
han gora ezta inor igotzen
sasoikoa izan ezik,
Tourmalet bera igo ta ere
ez leike halako pozik.

(6)

Ondoren Leitza zoragarrira
iristea legezkoa,
frontoira joanda dutxa bat hartu
gozoa eta freskoa,
bi edo hiru trago hartuta
bazkari bat urrezkoa,
bere nekea bazuen baino
zeinen egun gogozkoa.